



IGONE MARTINEZ DE LUNA

"Arabako kultur eskaintza orekatu behar dugu"

Herrietan, sutondo berriak

Goraldian daude biomasa proiektuak

Zalduondon, auzolanari bultzada

Gustavo Fernandez Villate alkateari elkarrizketa

ZATOZ EUSKALTELEN ZUNTZERA

GUZTIA

0 € / HIL

2016 ARTE



Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero, hileko 50,9 €-an soilik (BEZa barea)

Kontratatu urriaren 31 baino lehen, webgunean, saltokietan edo 1717an.

euskaltel

Sustapen hau 2015/10/31 baino lehen Zuntzean egiten diren alta berriei aplikatuko zaie. 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa. Informazio gehiago, www.euskaltel.com-en.

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitetz. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus



Alea

35. zk.

Azaleko argazkia:
Itsaso Estarrona



- 4 Biomasa proiektuen loraldia Araban.
 - 8 I. Mtz. de Luna: "Kuadrillen arteko ezagutza sustatuko dugu".
 - 12 Iritzia: Maialen Berasategi, Mikel Ayllon, Itsasegia.
- ### ARABAKO KUADRILLAK
- 14 Gasteiz: Salburuko hezegunea babesteko, bost milioi euro.
 - 16 Aiaraldea: aurkikuntza berriak ezagutzeko aukera, Ermun.
 - 17 Gorbeialdea: enpresa berrientzat laguntzak abian.
 - 18 Lautada: Zalduondoko alkateari elkarrizketa.
 - 20 Añana: diru-laguntzak, eskolara autobusez joateko.
 - 21 Mendialdea: Liburutegiaren eguna ospatuko dute Maeztun.
 - 22 Trebiñu: jardunaldi mikologikoak prestatu dituzte Baxaurin.
 - 23 Arabako Errioxa: euskararen aldeko herri lasterketa Oionen.

HAMAIKA SALTSA

- 24 Kike Amonarriz: "Esperimentu linguistikoa da Gasteiz".
- 26 Bernaola Festival jaialdiak musika berriena dakar.
- 27 Zozketak.
- 28 Postontzia.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa

Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala

Erlantz Anda

Denbora pasak

Bagabiga

Inprenta

Bidasoa inprentatzeko zentroa

Banaketa

Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa

erredakzioa@alea.eus

Harpidetzak

harpidetza@alea.eus

Publizitatea

publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Maialen Berasategi, Mikel Ayllon, Iker Etxaniz, Estibx Ugarite eta Aitor Alvarez.

ALEAk ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Basotik berogailura

Zuhaitzetako egurra energia iturri gisa erabiltzea: hori da Arabako gero eta herri gehiagoren helburua. Biomasa proiektuak oinarri, dirua aurrezteaz gain eredu jasangarriagoa ezartzea dute iparroratz. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Sutondoan bertsio modernoa da biomasa: materia organikoa energia iturri gisa erabiltzea, alegia. Araban, hainbat dira zuhaitzetako egurra baliatzearen aldeko apustua egiten ari diren herriak. Okina izan zen lehena pasa den urteko udaberrian, eta Sabando, Bernedo, Araia eta Kanpezu bezalako herrien urratsak jarraituz, Ozeta izango da aste honetan egur ezpalak erretzeko galdara martxan jartzen azkena.

Garai batean tximinian egiten zena egiteko modu aurreratua da biomasarena: "Bat-batean, pelleta modan jarri eta asko hitz egiten da horretaz, baina Arabako gure base-rietan, eta baita Gasteizko etxeetan ere, egurra izan da beti gure erregai nagusia; horren adibide da Arabako baso publikoetako egur zozketa edo 'suertea'". Hala azaldu du Iñaki Gerenabarrena ingeniariak, Eusko Jaurlaritzako Hazi fundazioan biomasa proiektuen arduradunak. Bai Hazi, bai Energiaren Euskal Erakundea (EEE, edo EVE, gaztelera) elkarlanean aztertzen dituzte herrietan biomasa ezartzeko aukerak, 2020rako Euskadiko energia estrategiaren baitan aurreikusitako bero iturria den heinean.

Merkeagoa eta jasangarriagoa

Elektrizitatea eta beroa sortzeko balio du biomasak, eta aukera biak baliatzen dituzte Frantzia, Alemania eta Ingalaterra bezalako zenbait herrialdetan. Araban, aldiz, beroa



ERLANTZ ANDA

Araba osoan

ZORTZI PROIEKTUTIK GORA

Gasteiz: Olarizuko etxaldea eta lau gizarte etxe berotzen dituzte biomasarekin (Ibaiondo, Iparralde, Mendizorrotxa eta San Andres).

Okina: Araban lehenak, herriko etxebizitza guztiak berotzen dituzte 2014ko udaberritik (375.000 euroko inbertsioa).

Sabando: 2014ko urritik abian, herriko 38 etxeak berotu ahal izateko azpiegitura dute (480.000 euro).

Bernedo: udal-aterpea pellet galdara batekin berotzen dute pasa den martxotik (82.300 euro).

Kanpezu: kultura etxea eta udaletxea pellet bidez berotzen dute irailaz geroztik (110.000 euro).

Araia: osasun zentroa, haurreskola, eskola eta kultur etxea berotzen dituzte martxotik (285.000 euro).

Amurrio: kiroldegia, musika eskola eta ikastola biomasarekin berotzeko proiektua garatzen ari dira.

Aramaio: Ibarako etxe eta eraikin guztiak eraman nahi dute biomasa (3 milioi euro inguru).

ekoizteko baino ez da erabiltzen, elektrizitate-autokontsumoa eragotzen duelako Espainiako araudiak.

Edonola ere, "aukera ona" da herrietan, Gerenabarrena nabarmendu duenez: alde batetik, aurrezteko era bat da, egurra beste lehen-gai batzuk baino merkeagoa izaten delako, eta atzerritik ekarritako erregaien prezio gorabehera ihes egiteko modu bat delako; bestetik, gasolioa eta gasa baino jasangarriagoa da, karbono dioxido gutxiago eragiten duelako eta horien aldean garraio-kutsadurarik eragiten ez duelako; eta, bukatzeko, Arabako basoak "osasuntsu" mantentzeko modu bat da ere, enborrak antolatuz eta sastrakak eta zuhaitz txikiak kenduz suteak eta hainbat gaixotasun saihestu daitezkeelako, kontuan hartuta derrigorrezkoa dela botatuko zuhaitz batengatik beste bat landatzea.

Galdara batekin, hainbat eraikin

Ezaugarrien arabera, produktu ezberdinak erabili ohi dituzte biomasa erabiltzaileek: etxe txikietan, zerrautsa tratatuz lortzen diren 'pellet' zatiak kontsumitzen dira batez ere; baserri handietan, egur puskak; eta udaletako proiektuetan, egur ezpalak. Zehazki, *district heating* izeneko formula abiatu dute udal gehienek: hitz gutxitan, galdara batekin eraikin multzo oso bat berotzeko sistema. Hori da hain zuzen Barrundiako udalerriko Ozeta herriaren kasua.

"Biomasari esker hainbat helburu beteko ditugu: basoak garbitu, aurreztu eta gutxiago kutsatu"


AFRO OLABE BARRUNDIAKO ALKATEA

"Aramaioko herriguneko etxebizitza guztiak biomasa sistemarekin berotu nahi ditugu"

LIERNI ALTUNA ARAMAIOKO ALKATEA

"Arabako hiriburuan Gasteizko Mendietako egurra erabiltzeko aukera aztertzen ari gara"

IÑAKI GERENABARRENA HAZIKO INGENIARIA



Afro Olabe, Ozetako alkatea, enbor apaingarri batean

I. ESTARRONA



Lierni Altuna
Aramaioko
alkatea, Ibarra.

E. ANDA



Iñaki Gerenabarrena,
Haziko ingeniaria
Arkautin.

I. ESTARRONA

Afro Olabe alkateak ALEARI azaldu dionez, datorren astetik aurrera hiru eraikin berotuko dituzte euren egur baliabideekin: haurreskola, udaletxe berria eta udaletxe zaharra. Pagoak, haritzak eta pinuak dituzte Elgeamendin, eta arteak Aldaia mendilerroan: "Horietako batzuk moz-tuta -70 tona gehienez urtean-, gure basoak garbituko ditugu, tamalez nahiko utzita daudelako". Bestalde, berogailu eta ur beroko fakturan 4.000-6.000 euro bitartean aurreztuko dutela jakinarazi du, gaur egun 12.000 eurokoa den ordainagirian. Alkatearen hitzetan, "aurrezteaz eta gutxiago kutsatzeaz gain", lana ere sortuko dute udalerrian: "Barrundiako hiru enpresek egiten dute egurrarekin lan, eta horiei eskainiko diegu udalaren egurra kudeatzeko kontratua".

Berogailu eta ur beroko fakturan %50erainoko aurrezpena lortu dezakete udalek biomasarekin

Guztira, 230.000 euro gastatu dituzte proiektuan, bere aurrekontuaren laurdena, Jaurlaritzako eta Europako diru-laguntzei esker ordaindua. Orain, inguruko herrietarako erreferentzia izan nahi du Ozetako, eta etorkizunari begira, herri osoa biomasa bidez berotzea dauka "ametsen" zerrendan, Aramaiora begira.

Aramaion, herri osoa

Anbizio handiko proiektua dute Arabako Aramaio herrian 2008az geroztik. Herrian burujabetza energetikoa lortzeko asmoz, herriguneko etxe eta eraikin guztietara eraman nahi dute biomasarekin sortutako energia, bertan duten mila hektareako baso-azalera ustiatuta. Egitasmoarekin, hiru tona CO2 gutxiago isuri lezakete erregai fosilak darabiltzaten 200 etxebizitzetara biomasa eramanda, eta %40a aurreztuko lukete ordainagirian.

Dagoeneko auzokideen %80ak baietza eman du, eta, Lierni Altuna alkateak ALEARI azaldu dionez, laster abiatuko duten kanpainarekin %100aren oniritzia jasotzea espero dute. Bitartean, lan krono-

Hiru eremu...



ALEA

KANTAURI ARABARRA

Aiaraldea eskualdean, *radiata* pinua dago erabilgarri batez ere.



ALEA

ARABAKO ERRIOXA

Mahastien xirmenduetan dute potentzialtasuna Araba Hegoaldean.



ALEA

ARABAKO ERDIGUNEA

Pagoak, ametzak, erkametak eta haritz mota batzuk baliatu daitezke.

...hiru aukera nagusi

ETXEAN, PELLETA

Zerrautsa landuz egindako zati txikiak, gordetzeko errazak.



ALEA

BASERRIAN, EGURRA

Enbor zatiak, biltegia duten etxe handietan.



ALEA

UDALETAN, EZPALA

'District heating' proiektuetan erabilia.



ALEA

grama osatzeko fasean daude: "Diru-laguntzak lortu behar ditugu, eta lanak noiz eta nola egin zehaztu". Hiru milioi euroko gastua aurreikusten dute, tutuak jartzeko herri osoa altxatu behar izango dutelako.

Araia eta Ozetako proiektuak martxan, Amurrio eta Aramaiokoak dira hurrengo egitasmoak

Okinan, aitzindari

Aramaiotik hegoaldera 50 kilometroa, Arabako Mendialdeko Okina herrian aitzindariak izan ziren biomasaren aldeko apustua egingez. Herrian obrak egin behar zituztela aprobetxatuz, biomasarako hodiak ere jartzea erabaki zuten eta, egurra gordetzeko biltegia eraiki ondoren, bi galdara erosi eta herriko 15 familien etxeetara lotu zituzten. Iazko neguan, 300 tona egur erabili zituzten, eta Izki Landa Garapenerako Elkarteak ALEARI orduan jakinarazi zionez, %50 aurrezteko lortu dute. Okinaren atzetik, hainbat herri igo dira biomasaren gurdira tamaina ezberdineko egitasmoekin, tartean Sabando, Bernedo, Kanpezu eta Araia. Amurrioren ere *district heating* proiektua dute esku artean.

Gasteizen, Aragoiko egurra

Arabako hiriburuan, 2012an jarri zuten martxan lehen biomasa zentrala, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia kokatuta dagoen Olarizuko etxaldea berotzeko (CEA gaztelaraz). Ondoren, lau gizarte etxetan ezarri dute sistema bera: Ibaiondon, Iparralden, San Andresen eta Mendizorrotzako kirolgunean. Hiriak 90.0000 euro aurrezten baditu ere, emaitza hobekak lortu litzake bertako egurra erabiliko balu, gaur egun Aragoiaren erosten baitu. Horretarako, Gasteizko Mendiek eskainitako aukerak aztertzen ari da Hazi fundazioa.

Behin ikerketa bukatuta, Udalak erabaki beharko du bertako egurra edo Pirinioetan erositakoa erabili. Izan ere, biomasa hiriko beste bater batzuetan ezartzeko aukerak aztertuko ditu, tartean datorren urtean zaharberrituko duten Korozte auzoan.



Basoko egurra baliatuz eta galdara berezien bidez, ur beroa eta berogailurako lehengaiak lortzen dute biomasa proiektuek. | AITOR ALVAREZ

Bizimoduan eta gizartean gertatutako aldaketen eraginez, "azken lauhun urtetan baino egur gehiago dago gurean". Sasiak ere ugartzen ari dira, "eta horiek atontzea komeni da, gure basoen osasuna zaintzeko". **I. ESTARRONA GASTEIZ**

"Inoiz baino egur gehiago dugu"

Araban, eta Euskadin oro har, egurra da daukagun lehengai bakarra gaur egun, eta gero eta gehiago dugu; azken lauhun urteotan, ez dugu inoiz horrenbeste zurgai izan". Halaxe biribildu du egoera Eusko Jaurlaritzako Hazi Fundazioko Iñaki Gerenabarrena ingeniari eta biomasa proiektuetako arduradunak.

Basoek bere dinamika propioa dutela azaldu du Gerenabarrena: "Gizakiok hemen ez bageunde, basoak berak orekatuko luke bere produktzioa, gaixotasunen bidez eta berezko suteekin; baina, guretzat zorionez, hemen gaude gizakiok, eta basoaren dinamikaren parte bilakatu gara; basoak domestikatu egin ditugu, eta horiek zaintzeko ardura dugu orain".

Nekazaritzaren gainbehera

Azken mende erdian bizimoduan eta gizartean gertatutako aldaketen eraginez zabaldu da basoen azalera. Gero eta pinu gehiago daudenaren iritzia orokortu bada ere, alderantzizkoa gertatzen ari da Araban eta Euskal Herrian, Gerenabarrena azaldu duenez: koniferen hektareak murriztu egin dira, eta zuhaitz hostotsuena handitu. Dagoeneko ez dago basoen gaineko hainbeste presiorik,

62,6

MILIOI METRO KUBIKO

Gaur egun, duela 40 urte baino zurgai gehiago daude euskal basoetan, eta urtero lau milioi metro kubiko hazten dira, horietatik bi milioi biomasa proiektuetan erabiliak; estatuan zurgai dentsitate handiena duen erkidegoa da Euskadi, eta erabiltzen diren energia berriztagarrien %57a biomasa da EAEn.



ERLANTZ ANDA

mendietan gero eta ganadu gutxiago dago, nekazaritzak behera egin du, luberri batzuk dagoeneko ez dira erabiltzen, eta gero eta herritar gutxiagok parte hartzen du baserria berotzeko egur zozketan. Basoa tokia

hartzen joan den heinean, sasiak, zuhaixkak, enbor txikiak eta txirpiak ere ugartitu egin dira eta, ondorioz, epidemia eta sute arriskua ere handituz joan da.

"Gure basoetan sastrakak eta zuhaitz txikiak nagusitzen hasi dira; atontzea komeni da"

IÑAKI GERENABARRENA HAZIKO INGENIARIA

Gasteizko basoetan, sasiak

"Lehen, gure arbasoek txirpiak eta sastrakak 'kimatu' egiten zituzten, nolabait esatearren, baina gaur egun inork ez du lan hori egiten, eta beharrezkoa da". Badaia mendilerroan, Gasteizko Mendietan, eta Legarda Foronda eta Apodakarraino dauden artadi eta erkametzetan, besteak beste, "komenigarria litzateke atontze lanak egitea". "Enbor beretik sortzen diren sei-zazpi enbor txiki kenduko bagenitu, adibidez, gure ilobek zuhaitz sendo eta baso ederrak izango litzateke, eta guk bitartean egur hori baliatuko genuke, biomasa proiektuetarako".



Igone Martinez de Luna, Arabako Arte Ederren museoa.

IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILEKO FORU DIPUTATUA Arabako kultura eskaintzan herrien arteko "oreka" lortu nahi du diputatu berriak; horretarako, kulturgileekin "zubiak berreraiki" nahi ditu. **I. ESTARRONA / A.AMENABAR** GASTEIZ

"Arabako herrien arteko kultura harremanak indartu nahi ditugu"

Kargua hartu zuenetik eskaini duen lehenengo elkarrizketan, Diaz Olano eta Amarica margolari arbarren idiak eta paisaiak ditu zela-tan, Arabako Arte Ederren Museoan ALEA-rekin egin duen hitzorduan. Dulantziko oposizioko zinegotzi izateaz gain, Arabako Euskara, Kultura eta Kirol saileko ardura hartu zuen uztailan Igone Martinez de Luna Unanuek (Gasteiz, 1966). Datoren lau urteotan garatuko duen kultur plan berriarekin, kuadrillen artean "oreka" lortu nahi du.

Nolako egoera aurkitu zenuen kargua hartzerakoan?

Harrigarria. Zubiak apurtuta zeuden, bai langileekin baita kultur eragile gehienekin ere. Gure lehenengo lana, beraz, zubi horiek berre-raikitzea izan da.

Eragile horien artean osatu berri den Arabako kulturaren mahaia dago. Harremanik al duzue? Kultur arloan 'utzikeria' salatu dute...

Ofizialki ez dugu harremanik izan, oraingoraino osatze prozesuan daudelako, baina pertsonalki pare bat ekitalditan egon naiz, eta nahi dutenean biltzeko prest agertu naiz.

Ekimen positiboa iruditzen zaizu?

Oso positiboa. Araba mailan, kultura plan bat garatzea izango da Diputazioaren ildo nagusietako bat, eta haiek ere zeresan handia izango dute horretan.

Zer zutabe izango ditu kultura plan horrek?

Lehenik eta behin, ondo aztertu behar dugu herri bakoitzean zer talde ari diren kultura arloan lanean, eta zer ekimen dituzten. Ondoren, herrietan zer azpiegitura dauden eta zer erabilera ematen zaien zehaz-

Fitxa

IGONE MARTINEZ DE LUNA

Ikasketak: Zuzenbidean lizentziatua.

Ibilbide politikoa: Eusko Alkartasunarekin legebiltzarkide izan ondoren (1994-1998), Hamaika Bat zatiketarekin bat egin zuen; gaur egun, EAJ-ren foru gobernuan diputatua da, eta Dulantzin zinegotzia.

Bestelako karguak: Justizia, Enplegu eta Hezkuntza sailetan kabineteko, ikerketa eta araubide juridikoen zuzendari izan da (1999-2009).

"Jazzaldia eta Antzerki Jaialdia Gasteiztik kanpoko herrietara eramateko lan egingo dugu"

"Sarea josi nahi dugu, Lautadan jakin dezaten Aiaraldean zer egiten ari diren, eta alderantziz"

tu behar dugu. Diagnostiko hori egin eta gero, Araban zer eredu nahi dugun eztabaidatu beharko dugu, ondoren plana abiatzeko

Zuk zer kultura eredu proposatzen duzu? Niretzat beharrezkoa da Arabako herri guztien arteko berdintasuna bermatzea eta lurralde osoan oreka egotea: hau da, nonahi bizi garela

ere, arabarrok kalitatezko kultur zerbitzua izatea.

Nolakoa da gaur egun herrietako egoera? Adibidez, bizi zaren herrian, Dulantzin.

Sorkuntza aldetik ezer gutxi dauka herrian, eta eskaintza aldetik ere. Badira Araban eskaintza handiagoa duten herriak, baina ez da errealitate orokorra; kezkarria da.

Nola eman nahi diozue buelta horri?

Kultura planarekin, eta Kuadrilletak eta udaletako kultura teknika-riekin batera, haiek ezinbestekoak direlako herrietan kultura ekimenak gauzatzeko. Interesgarria litzateke, esaterako, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia eta Jazzaldia Gasteiztik kanpo ere eramatea, Araban lurralde oreka bilatuz. Horretarako lan egingo dugu.

Herriak Gasteiztik hain gertu egonda?

Amurrio edo Bernedo Gasteiztik gertu daude?

Lurralde oreka hori bilatuz, Arabako Kuadrillen ibilbidea egiteko asmoa iragarri duzu Diputazioan. Zer izango da?

Arabako herrien eskaintza lurralde osoan ezagutarazi nahi dugu. Alegia, sare bat josi nahi dugu, Lautadan jakin dezaten Aiaraldean zer talde dauden eta zer egiten ari diren, eta alderantziz. Modu horretan, Kuadrilla bakoitzean besteetan zer egiten duten jakingo dute, eta horrek elkarlanerako aukerak zabalduko ditu.

Bi proiektu garrantzitsu daude Araban; Añana gatz harana eta Arabako errioxako paisaia, biak Unescoren ondare izendatzeko egitasmoekin.

Gatz haranaren fundazioaren patronatuarekin hitz egin eta gero, proiektuari bueltatxo bat eman nahi diogu, ingurumen ikuspuntua bultzatuz, Arabako motore estrategiko bat

delako. Ez dakigu oraindik Unesco-
corako proposamenik egingo dugun
ala ez, hori lan luzea izango da.

Eta Errioxakoa?

Jauralaritza ari da horretan lanean.
**Zure lehenengo neurria foru sareko
museoak dohainik eskaintzea izan da,
maiatzetik aurrera. Zer beste neurri
aurreikusten dituzue museoen planean?**
Gure museoek ondare funts handia
dute, baina ez dira ezagunak, eta
beraz horiek ezagutaraztea izango
da abiapuntua, sare sozialen erabi-
lera indartuz.

Doakotasunak jendea erakarrik du?

Espero dezagun. Aurreko gober-
nuarekin doan izateari utzi zioten-
ean, nabarmen jaitsi zen bisitari
kopurua. Gutxienez, ez dezagun
sarrera oztopatu.

"Natur zientzien museoaren eginkizuna eta egoitza berria zehaztu behar ditugu"

Oinarri kultura eta kultura alternatiboa sustatzeko asmorik baduzue?

Elkarlana eta akordioak izango dira
kultura planaren ardatzak; beraz,
ekimen eta kolektibo guztiek izan-
go dute parte hartzeko aukera.

Azpiegitura aldetik, zer iruditzen zaizu Krean arte eta diseinu campusa ezar- tzeko asmoa?

Diru publiko asko erabili zen Krea
eraikitzeko, eta pena bat izan zen
gero itxita geratzea. Unibertsitate
ikasketa batzuk kokatzeko aukera
dago, eta printzipioz baikorrak gara.

Interes publikoa bermatuko da?

Ez dut ezagutzen unibertsitatearen
egitasmoa, baina printzipioz berta-
ko espazioa guztiontzat erabilgarria
izan beharko litzateke.

Sancho El Sabio fundazioa dago Krearen gunean; kezkarik adierazi al dizuzte campus berria dela eta?

Ez dut halakorik entzun.

Natur zientzietako museoan aldaketak egin nahi dituzue. Zeintzuk?

Museo horretan dauzkagun funtsak
apartekoak dira Euskal Herri mai-
lan eta, beraz, museo horren defi-
nizioa egitea da gure lehentasune-
tako bat. Horretarako, lantalde bat
eratu dugu Aldundiak, Gasteizko
Udalak eta Jauralaritzako Kultura



"Euskaldun zaharra naiz"

Gobernuan ala oposizioa nahiago?

Berdin zait, bakoitzak bere
lana egin behar du
dagokion tokian.

Noiz ikasi zenuen euskaraz?

Euskaldun zaharra naiz,
amak erakutsi zidan.
Lasturrekoa zen [Gipuzkoa].

'Berbalaguna', zuretzat...

Hainbat emakume eta
lagunekin egoteko aukera
ederra da, asteazkenero
Dulantziko Triki-Trago
tabernan.

Arabako zure museorik gogokoena.

Arte Ederretako Museoa.
Zoragarria iruditzen zait.

Liburu bat.

Arrainak ura baino, Hasier
Etxeberriarena.

Gasteiztik Dulantzira, zergatik?

Ezkontzerakoan joan
nintzen, duela 18 urte. Herri
lasaia eta eroso da
bizitzeko.

Ikusi duzun azken antzerkia?

Araiako umore antzerkiaren
jaialdian, Txortasek
zuzendua [Javier Alkorta].

Jazzaldia edo Azkena Rock?

Jazzaldian birritan egon
naiz, baina Azkena Rocken
sekula ere ez.

Arabako txoko bat.

Seguruenik Gasteizko alde
zaharra.

eta Ingurumen sailek.

Lekuz aldatu nahi duzue ere. Nora?

Udalak eskainita, lekuren bat bisi-
tatu dugu, baina lehenengo museo-
aren eginkizuna definitu behar dugu,
eta ondoren egoitza aukeratu.

Eta Otxanda dorrean, zer?

Oraindik ez zaigu eskaririk heldu.

Arte eta Lanbide eskola ataka zailean dago ere. Zer etorkizun duzue harentzat?

Bere bideragarritasuna bermatzeko
lantaldea osatuko dugu. Eskolaren
eskaintza gizartearen eskariarekin
bat ote datorren aztertu beharko
dugu. Eraikinaren egoera kaxkarra,
ekipamendua eta langileen baldin-
tzak ere aztertu beharko ditugu.
Hausnarketa serioa egin behar dugu
Udalarekin batera, eta ondoren bide-
ragarritasun plana diseinatu.

Eskaintza egokitzeaz ari zarenean, zer esan nahi duzu? Ikastaro gehiago, gutxia- go, ezberdinak...?

Arte eta Lanbide Eskolako eta Gas-
teizko gizarte etxeetako eskaintza
osagarri izateaz ari naiz.

Euskara arloan, zer asmo duzue?

Euskararen erabilera sustatzea da
gure erronka. Jakinik gazteria dela
euskaraz gehien dakiena, haiei begi-
ra izango dira egitasmo nagusiak.

Orain arte, neurri zehatzik hartu duzue?

Oraindik ez. Aurrekontuaren ara-
bera erabakiko ditugu.

Trebiñun, Argantzoren ikastolak babes handiagoa eskatu du. Zortzigarren kua- drillan, nola bultzatuko duzue euskara?

Zortzigarren kuadrilla da guretzat,
eta bertako euskara teknikaria finan-
tzatzen dugu. Seguruenik gauza
gehiago egin daitezke, baina orain-
goz esandakoan gaude.

Euskararekin lotuta, Iruñia Veleiaren auzia dago. Auzitegiatar mugatuko den gai bat da, ala politikoki ere jorratu beha- rrekoa?

Oraindik instrukzio fasea ez da
amaitu, eta horren zain gaude. Erres-
petatzen ditut aurreko diputatuak
emandako pausoak.

SOS Veleia taldeak bestelako ikerketa batzuk eskatzen ditu.

Bildu gara haiekin, baina guk ez
ditugu egoki ikusten haiek egiten
dizkiguten eskakizunak.

Sorkuntza garaikideko zentro garrantzi- tsua izango da Donostiako Tabakalera.

Zein izango da orduan Artiumen lekua?
Osagarriak izan behar dira. Leku
bila dabilzan sortzaile asko dauz-
kagu.

"Herri kirolei prestigioa eman nahi diegu; azkenaldian, baztertuta egon dira"

Artiumek aldaketarik egin beharko du?
Gasteizko, Arabako eta Euskadiko herritarrekin eta artistekin sintonizatu behar du Artiumek. Plan estrategiko berrian landu beharreko ildo da.

Donostia 2016 egitasmoak zer nolako eragina izango du Araban?

Gure laguntza eskaini diogu Donostiari, eta Artium ere haiekin elkarlanean ari da erakusketaren bat antolatzeko.

Kirolean eskola kirola indartu nahi duzue-la iragarri duzue.

Eskola kirolako hezitzaileen formazioa bultzatu nahi dugu, emakumezkoen kirola sustatu eta herri kirolak ezagutarazi eta prestigioa eman, baztertuta egon direlako.

Epe motzean, zertan jarriko duzu indarra?

Aurrekontuak onartzeko lan egiten ari gara.

Murrizketarik gabekoak?

Murrizketarik gabekoak. Bestalde, kultura planaren oinarriak jarri nahi ditugu, eta euskararen erabilera bultzatzeko lehenengo neurriak zehaztu.



Diaz Olanoren 'Angelus otoitza soroan' margolanaren aurrean.

I. ESTARRONA

2. LAUTADA EGUNA

**ARABAKO LAUTADAKO PRODUKTUAK, BERTAKO ABESBATZEN
TOPAKETA ETA ESKUALDEKO HAINBAT EGITASMOREN AURKEZPENA**

08:30

Nordic Walking irteera (MUGIMENT- Basque Country).
(Udaletxeko plazatik Gebarako Gaztelura)

10:30

Arabako Lautadako ekoizleen, produktuen eta artisautza ekoizpenen
aurkezpena. Txikienezako Slow Food Arabak lagunduta.
(Udaletxeko plazan)

11:30

Eskualdeko bost abesbatzen topaketa
(Elizan)

13:00

Dastamen tailerra

**urriaren 25ean
Ozaeta (Barrundia)
08,30etatik 14,30etara**



Barrundiako Udala
Ayuntamiento de Barrundia



MIKEL AYLLON
IDAZLEA



Beste mundu bat

Halako batean ohartu ginen norabiderik gabeko mundu honek, ezinbestean, ez ginderamatzala inora. Kasik oharkabean gertatu zitzaigun, norbaitek begien aurrera braust bota izan baligu bezala, zutabe honen hasiera gupidagabea nola, lasai eseri, bi arnasaldi sakon egin eta letren dantza zoroa hasi

aurreko isiluneaz gozatzeko aukerarik eman gabe.

"Izatekotan, mundu hau beste modu batera izango baita posible"

Edozeinek pentsa dezake, noski, ez dagoela ikusi nahi ez duena baino itsu itsuagorik. Baina batzuetan, aizue, nahi

izatearen bideak hain dira bihurri eta bihurgunetsuak! Nolanahi ere den, hemen eta orain axola duena hori da: kito esan genuela askok, edo ez gutxik behintzat, pentsa litekeena baino gehiagok seguru.

Mundu hau ez da posible esan genuen, eta gutako azkarrenek, ameslarienek edo malabaristek, auskalo, laster zuzendu zituzten gure hitzak: beste mundu bat posible dela egin zuten aldarri.

Irudipena dut ez ote ginen gehiegi isildu (eta bai, edozeinek pentsa dezake, noski, ez dagoela hitzik egin nahi ez duen mutua baino mutuagorik), ez dagoen beste mundu baten esperantza antzura kondenatu gintuztenen aurrean. Mundu bakarra dugulako, eta, izatekotan, mundu hau beste modu batera izango baita posible.

Geroztik, aho-begiak zabal-zabalik paseatzen gara, itxaropen etengabe berrituekin: gaur Alternatiben Herri dena izango ahal da bihar Herri, holaxe, izen-abizenik gabe, soil eta simple. Ez dago beste alternatibarik.

MAIALEN BERASATEGI
ITZULTZAILEA



Arrozten

Ez da ezeren ondorio, eta denaren ondorio da. Inor ez da kulpante. Eta denok gara.

Erdarazko komunikabideen omnipresentiaren ondorio da –klasiko batekin hastearren–; munduaren berri erdaraz ematen diguten egunkari eta telebisten inbasioarena. Inolaz ez da munduaren berri izateko erdarazko

periodikoak –soilik– erosten tematzen diren euskaldun petoen kulpa.

"Ez da ezeren ondorio. Inor ez da kulpante. Eta denok gara."

Francoren garaiko hezkuntza zurrun espainolaren ondorio tamalgarria ere bada. Guri, XXI. mendeko

ikastoletako seme-alaboi, literatur klasiko landuak irakurrarazten zizkiguten DBHn Gaztelania ikasgai, eta Euskaran, aldiz, nerabeen lehen mozkorrei eta liggie buruzko liburuxkak, euskara oinarri-oinarrizkoan idatziak, inor ez uxatzeko-edo. Baina ez da horren ondorioa, baita zera ere. Han-hemengo kartelak euskaratzeko Google Translate baliatzen duten enpresen errua da, eta ez liburu ederki euskaratuak sekula santan leitzen ez dituzten irakurzale finena.

Juan Garzia Garmendia itzultzaileak –zeinari, bide batez esanda, Euskadi saria eman dioten berriki, Shakespeareren sonetoak maisuki euskaratzeagatik– honela esan zuen ez oso aspaldi, 111 Akademian egin zioten elkarrizketa batean: "Alemanez, Shakespeareren sonetoen itzulpenak bertako literatura dira. Gurean, Axularrenak itzulpenak dira".

Erdarak bortxaz geuretuarazten dizkigutela kexatzen baikara, euskara guk geuk eta inoren laguntzarik gabe arrozten dugula ahaztuta.

ENPRESA EUSKALDUNDUZ ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#Askapena

Astlehenean hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalean Askapenaren kontrako epaiketa, azaroa arte luzatuko dena; elkartasun mezuak helarazi eta borroka internazionalista goratu dute hainbat txiolarik, epaiketa hastearekin batera. **A.A.** @anamenabar GASTEIZ

**Ruben Sanchez @arlotea**

Zu ere "epaiketa" horretan egon zintezkeenaren sentipen hori... Animo lagunak! Internazionalismoa aurrera!

**Amaia Izko Aramendia @Amaialzko**

Internazionalismoa ahoan, independentismoa bihotzean, auzitegi nazionallean, basapiztiaren tripetan...

**Basurde @DaniBasurde**

Gaur beste epaiketa berri bat AN-an. Gure babes osoa eta bereziki Walterri ze berarekin asko ikasi dugu. Gora @Askapena

**Galder Gonzalez @theklaneh**

Astero, ostera, hastera. #askapenaurrera

**Itsaso Lekuona @ItsasoLekuona**

Gure herriaren alde borrokatzeko duten gaitasunagatik daude #Askapena-ko 5 kideak akusatuen aulkian. #AskapenaLibre

**Hodei Iurretagoiena @hirul**

Wendelin: brigadak, komertzio justua, boikot kanpainak, gizartearen sentsibilizazioa... aipatu ditu lanen artean.

**Kike Fdz de Pinedo @KikeFdzPinedo**

Elkartasuna Askapenarekin gaur ere euren kontra hasi den epaiketaren aurrean. "Dena ETA da" zentzugabekeriaren azken atala.

**Mikel Perez @MikelPerez22**

Gaur beste kolore bat kendu nahi diote munduari. Baina guk ezetz diogu! #AskapenaAurrera #HerriakLibre

**Ibai Azparren @ibaiazparren**

Herrien arteko elkartasuna ez da delitua, premiazko eskubidea baizik. #AskapenaAurrera

**Iraide Lejarreta @lapurriana**

Gora EH internazionalista! Animo pila bat Gabi, Walter, Unai, Aritz ta David. Gora Askapena!

GUTUNAK

Gasteizen, berriz ere

IGOR GOIKOLEA GASTEIZ

"Bai, beste atxilotu bat". "Bai, Gasteizen berriz ere". Genero indarkeria. Eraiketarik ez badago, badirudi genero indarkeria ez dela existitzen. Zaila da albistea Gasteizko eta Arabako medio lokaletan topatzea: nahigabe errutina bilakatu da komunikabideetan. Normala, azkenengo datuei erreparatuta.

Abuztu hasieratik gaur egun arte, soilik Gasteizen, 30

gizonezko baino gehiago atxilotu dituzte genero indarkeriagatik.

Jaietan sei atxilotu, eta bost egun horietan atxilotutakoen adinekin zur eta lur: 20, 21, 22, 23, 33 eta 41. Bi hilabete hauetan atxilotutako gehienek oraindik ez dituzte 30 urte bete. Abuztuan zehar, Blusen eta Nesken Batzordeko presidenteak telebistan astakeriak botatzen zituen bitartean, bi egunero beste atxiloteta baten berri izan genuen. Arrazoi berdina: genero indarkeria. Noski, esan beharrik

ez dago 30 atxilotetek ez dutela esan nahi 30 eraso egon direnik. Salaketa gehiago jaso ditu Gasteizko Udaltzaingoak edota jaietan eraso sexistei aurre egiteko ahalbidetutako telefonoak. Hainbeste atxilotu egon badira, zenbat eraso egon dira bi hilabete hauetan? Hausnartu dezagun. Atxilotetarik ez badago, badirudi ez dagoela genero indarkeriarik.

Datuak aurrean, "zer zabilta horren baka-rrik" esatea ez da eraso? Berbalki ere

erasotzen da. Nork errepikatuko du "Gasteizko jaiak ia-ia bertan behera geratu dira, feministen erruz"? Abuztuaren 8an, 20 emakumek ekimen bat egin zuten. Orduetik, 30 gizonezko baino gehiago atxilotu dituzte. Azkena da arazoa; salatu eta konpondu beharrekoa.

Parte hartzeko:
erredakzioa@alea.eus
Gehienez, 1.500
karaktere. ALEAK
eskubidea du gutunak
laburtzeko eta HIRINET.
NET-en elkarbanatzeko.



Salburuko hegaztien intoxikazioak eta elektrokatutzeak saihesteko neurriak hartuko dituzte Diputazioak, Udalak eta Ura agentziak. | ALEA

Salburuko hegaztiak, istripu eta izurrietatik babestuago

Bost milioi euro bideratuko ditu Arabako Foru Aldundiak hezegunea babesteko neurriak hartzeko

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

Botulismo intoxikazioak jota seiehun hegazti hil ziren iaz Gasteizko Salburuko hezegunean, eta beste hirurogei aurtengo udan, gaixotasunaren aurkako neurriak hartu eta gero. Izurrite horiek lehenago antzeman eta heriotza masiboak saihestu ahal izateko, alerta goiztiarrerako sistema ezarriko du orain Arabako Foru Aldundiak. Urmaletan zianobakterioak aurkitzeko ur-laginak

hartuko dituzte aldizka, eta toxinen bat egotekotan, ura garbituko dute.

Izurriteak goiz antzemateko sistema hori barne, Salburuko hezegunerako babes-neurri sorta abiatuko du Diputazioak, 4,8 milioi euroko aurrekontuarekin. Bertako txoriak babesteko, linea elektrikoekin talka egin eta elektrokatatu ez daitezen urratsak egingo dituzte, eta bertako espezieak arriskuan jar ditzakeen flora exotikoa kontrolatuko dute

era berean. Bestalde, Betoñuko urmalean sartzeraikoan Santo Tomas ibaiak gainezka egin ez dezan aldaketak egingo dituzte.

Urekin lotuta ere, Arkauti eta Elorriagako isurketa zikinak Gasteizko saneamendu sarera botako dituzte aurrerantzean; tartean, Ertzaintzaren akademiakoak, abere-granjakoak eta gertuko gasolindegikoak. Ildo berean, hezegunearen babes-perimetra handituko dute, eta ingu-

ruko beste gune babestu batzuekin konektatuko dute; horretarako, Otazutik fauna ekartzen hasi dira.

Zaramagan, auzo-baratza

Salburutik gertu, Zaramagan, hiri-ortua sortu nahi dute Zaramagako Foroa ekimeneko auzokideek, Laguardia kaleko 200 metroko partzelan. Interesatuentzat ikastaroa antolatu dute, larunbat honetan hasita (urriak 24). Emailaz eman daiteke izena, forozaramaga@gmail.com helbidean.



Udal gobernua eta EH Bilduk Gasteizko eta Arabako aurrekontuetarako akordioa lor dezakete. | ALEA

Gasteizko zulo ekonomikoa konpontzeko, akordioa

Enpresen iruzur fiskala atzemateko plana abiatuko du Udalak, EAJ-k eta EH Bilduk adostuta

I. ESTARRONA
GASTEIZ

Javier Maroto alkate ohiak 68 milioi euroko "aurrekontu-eskasia" utzi zuen Gasteizen, Udaleko kontu hartzaileak eta diruzainak hala baieztatuta. Zulo ekonomiko horri aurre egiteko, akordioa sinatu zuten pasa den astean Gorka Urtaran alkateak eta Miren

Larrion EH Bilduko udal bozeramaileak.

Lortutako akordioarekin, Amvisa ur enpresa publikoaren bost milioi euro dibidendu eskuratzea onartu dute; horiei Gilsa udal enpresako beste sei milioi euroko dibidenduak gaineratu behar zaizkie, bai eta Udalak eskatu duen sei milioi euroko mailegua

eta 21 Zabalgunea enpresak bankuei eskatuko dizkien beste 16 milioi euroak.

Akordioak hiru neurri aurreikusten ditu: bi milioi euro baino gehiago fakturatzeko dituzten enpresen iruzur fiskala atzemateko plana, udal-langileen baldintzak mantentzea eta gizarte politiketan murrizketarik ez gitea.

PARTE-HARTZEAN ALDAKETAK

Legegintzaldirako plan estrategikoa aurkeztu zuen asteartean Gorka Urtaran alkateak Europa biltzar etxean. Bertan, gaur egungo parte-hartze eredua aldatuko dutela iragarri zuen; sistema berria zehaztu arte, Udalak parte-hartze kontseiluen jardueraren etengo du.



Europa jauregiko aurkezpena, joan den asteartean. | ALEA



Aurreko edizio bat. | ALEA

Liburuak trukatzeko azoka zezen plazan

I. ESTARRONA
GASTEIZ

Irakurzaileek topagunerako aukera izango dute asteburu honetan Gasteizko Iradier Areana zezen plazan. Liburutegiaren eguna dela eta, Liburuaren truke azokaren zazpigarren edizioa antolatu du Udalak, trukeerako 3.000 liburu baino gehiagorekin.

Literatura lanen trukeaz gain, haurrentzako ipuin kontaketa saio bat eta hiru tailer antolatu dituzte, Inaki Carretero Gasteizko ipuin-kontalariarekin. Zuzeneko musika ere entzungo dute bertaratutakoek, Nika, Jon & Pais jazz hirukote gasteiztarrarekin.

Zuloari, saria

Gasteizko alde zaharreko Hedegile kalean (Correrian), Eusko Jaurlaritzaren Turismo eta Merkataritza saria jaso zuen asteartean Zuloa liburudendak. Sariarekin, 1987. urteaz geroztik auzoa eta hiri-ingurua dinamizatzeke egin duen lana aitortu nahi izan diote.



XV. mendea baino lehenagoko nekropoli bat topatu dute arkeologoek Ermuko Andra Mariko . | AIARALDEA ATARIA

Ermuko Andra Mariko indusketak ezagutzeko bisitaldiak antolatu dituzte

Sergio Escribano EHUKo arkeologoak gidatutako taldeak aurkeztu ditu aurkikuntzak

LUCIA MENOYO

LAUDIO

Laudioko Ermuko santutegia hobeto ezagutzeko bisita gidatu berriak antolatu dituzte. Urriaren 27an hasi eta abenduaren 29ra arte izango dira; Sergio Escribano EHUKo arkeologoak zuzenduko ditu, asteen hiru egunez.

Udan abiatutako indusketek emaitza garrantzitsuak eman dituzte. Nekropoli bat aurkitu dute basilizaren azpian, Escribanok azaldu moduan. Besteak beste, bi hilobi aurkitu dituzte bertan, zenbait txanponekin batera.

Aurkikuntza horiek noizkoak diren ikertzen ari dira orain. Izan ere, Ermuko Andra Mariko basiliza XV. mendekoa da

eta topatutako elementuak aurrekoak izan daitezke. Horretaz gain, basiliza baino zaharragoa den lurzorua ere topatu dute azpian, buztinez egindakoa.

Bertan antolatu dituzten bisitaldi gidatuetan,

Tenpluan bildutako adierazpen artistiko eta historikoak aurkeztuko dituzte

hain zuzen, udan egin duten lan arkeologikoa azaltzeaz gain, tenpluak biltzen dituen garai desberdinetako adierazpen artistiko eta historikoak aurkeztuko dituzte. Gainera, udan induskatu eta

orain beirate batez babestuta dauden hilobiak ikusteko aukera izango dute bisitariak.

Sergio Escribano arkeologoren aburuz abiatutako ikerketek eskerrak, historikoa, arkeologikoa,

Astearte, ostegun eta larunbatetan izango dira bisitaldi gidatuak

artistikoa eta topografikoa—Ermuko Andra Mariko historiari buruzko hainbat galdera argitzeko parada egongo da. Besteak beste, zergatik eraiki zuten, bertako ohiturak zeintzuk ziren edota basiliza XV.

mendekoa izanik zergatik XI. mendeko elementuak ageri diren argituko dute.

Bisitaldietan indusketan egindako aurrerapenak azalduko dituzte. Euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dituzte hauek; dohainik izango dira baina aurrez izena ematea beharrezkoa izango da (619753302). Astearteetan goizeko ordutegian (09:30-13:30), ostegunetan arratsaldeko ordutegian (15:30-19:30) eta, larunbatetan, goizez zein arratsaldez (09:30-13:30, 15:30-19:30) egiteko aukera izango da.

Laster, halaber, *ermualde.com* webgunea aurkeztuko dute bisitaldien inguruko argibide guztiak, eta sare sozialetan ere informazioa zabalduko dute.

Plan berezia

Laudioko Udalak, beste alde batetik, Ermuko Andra Mariko ingurua babesteko eta kontserbatzeko plan bereziarekin aurrera jarraitzen dute. Egitasmo horren bitartez, gainera, udalerriko ondare kulturala birgaitu, berreskuratu eta baloreari jarri nahi dute.



Ekintzailentzako laguntzak mugatuak dira; Gorbeialdean, sei plaza daude. | ALEA

Martxan da negozio berriak laguntzeko programa

Asteartean, hilak 27, amaitzen da laguntza teknikorako eta diru-laguntzetarako izen-ematea

MIRIAN BITERI

MURGIA

Lan barik zaude eta laguntza behar duzu buruan daukazun ideia garatu ahal izateko? Jakin Gorbeialdeko Kuadrillan astearte-

ra arte, urriak 27, eska daitezkeela laguntzak.

Lanbidek lanik ez duten eta beraien negozioa jartzeari ekin nahi dioten pertsoneri zuzendutako laguntzak onartu ditu; eta

kuadrillak eskualdean zein Otxandion deialdia egiteko ardura hartu du. Bertako Enplegu Sustapenerako teknikari Oihana Martinez Erraztik azaldu du laguntzak bi motatako ekintzai-

leeri zuzenduta daudela eta kasu bakoitzean plazak mugatuak daudela. Batetik, ekintzaileak izan daitezkeen pertsoneri zuzenduta daudenak daude; horien enpresa-idea garatzen laguntzeko plaza kopurua lau lagunena da.

Denera, sei plaza

Bestetik, bideragarritasun plana eginda eta negozio-idea zehaztuta duten ekintzaileei zuzenduta, datozen hilabeteotan martxan jartzeko eta JEZ-n (Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga) alta ematea asmoa dutenentzako laguntza dago. Kasu horretan, bi plaza daude. Teknikariak gogorarazi du lan barik egoteaz gain, Kuadrillako udalerrri batean edo Otxandion bizi behar direla eskatzaileak, edo esandako udalerrietan proiektua garatzeko asmoa izatea.

Informazio gehiago edo izena eman nahi dutenek Kuadrillak Murgiako udaltxean duen bulegora jo dezakete, 945 43 01 67 telefono zenbakira deitu edo economia@cuadrillazuia.com helbide elektronikora mezua bidali.

ZUIAN ERE MIKOLOGIA NAGUSI

Udazkenarekin batera asko dira mikologiarekin lotutako ekimenak egiten dituzten herriak; horien artean, Murgia dago. Hilaren 18tik 22ra, erakusketa eta hitzaldiak izan dituzte. Horrez gain, herriko tabernetan perretxikoz osaturiko pintxoak dastatzeko aukera egongo da.



Pasa den igandean erakusketa mikologikoa egin zuten Murgiako Jai Alai pilotalekuan. | INFOZUIA



Lau urtez oposizioan zinegotzi izan eta gero, Zalduondoko alkatea da uztailaz geroztik Gustavo Fernandez Villate. | I. ESTARRONA

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE

ZALDUONDOKO ALKATEA Besteak beste, herriko argiteria berritu, konpostajea bultzatu eta landa mailako inauteriak ezagutzera emateko proiektuak dituzte mahai gainean Zalduondon, alkateak azaldu moduan. **A. AMENABAR** ZALDUONDO

"Elkarbizitza indartzeko, auzolana berpiztu nahi dugu Zalduondon"

Aurreko larunbatean batzar irekia deitu zuen Zalduondoko Udaleko gobernu berriak lehenengo bost hilabateetan egindako lanaren berri emateko. Udaltxean zer aurkitu duten eta aurrera begira zer erronka dituzten azaldu du Gustavo Fernandez Villate alkateak (EH Bildu). Aurretik zinegotzia izan zen udaltxe berean eta Lautadako Kuadrillako presidente ere lau urtez. **Aurretik zinegotzia ere izan**

zara, baina zer topatu duzue udal gobernu hartuta?

Bagenekien zer aurkituko genuen baina aurrez aurre ikusterakoan harrিতuta geratu gara, batez ere zegoen anabasagatik, batik bat administrazio desordenagatik; ordenean jarri, kontratuak berrikusi eta egin gabeko kontuak egiten izan gara buru-belarri bost hilabete hauetan.

Eduardo Ribagudak, aurreko alkateak, 36 urte bete zituen alkatetzan.

Askotan gorai patu egiten

da kudeatzaile modura hainbeste urte egotea, eta nik uste dut herriak berak jakin behar duela lekukoa kentzen dagoenari eta dagoenak ere jakin behar duela uzten, haize berriak beti direlako onak. Horregatik, gure programan esan genuen gehienez hiru legealdi egongo ginela, ahal izatekotan, osasuntsuena delako. Eta ez gutxiago oso herri txikia delako eta ordezkioak bilatzea oso zaila izaten delako.

Berrehun bat biztanleko herri

bat kudeatzea handiago bat baino zailagoa ala errazagoa da?

Herri txiki, infernu handi esan ohi da. Arazoak egon badaude, baina askotan saiitzen gara elkarbizitzari lehentasuna ematen, eta horregatik nahiago izaten ditugu arazoak bertan eztabaidatu eta bertan utzi, lau haizetara gehiegi zabaldu gabe.

Elkarbizitza hori indartzeko egitasmorik baduzue?

Lan horretarako auzolana berpiztu nahi dugu. Aurre-

ko astean deialdi bat egin genuen, esaterako, eta partehartze handia izan zen. Herriaren mantenu lana egin genuen, belarra moztu, estolderia eta txokoa garbitu eta bestelakoak egin genituen, oso giro onean. **Azpiegitura proiektuen artean, argiteria berritzea aurreikusi duzue.**

Ea posible den ikusi behar dugu. Oso herri txikia gara eta ez dugu diru sarrera inportanterik, Fofel bidez eta zerga eta tasa bidez jasotakoak baino ez. Argiteria kontsumoa oso handia dela ikusi dugu eta LED modukoak jartzea dugu buruan; ate guztiak jo ditugu asmoa aurrera eraman ahal izateko.

Aurreko legealditik dator, baita ere, konpostajearen inguruko egitasmoa.

Eta bultzatzen jarraitu nahi dugu. Diputazioak bultzatu zuen asmo hori lurralde osorako baina Lautadako hainbat herri bakarririk erakutsi zuten interesa. Konpost gune bat jarri zuten, konposta zaintzeko lagunak formatu zituzten (zortzi, herrian) eta etxetara informazioa bidali zuten gunera zabor organikoak eramaten hasteko. Gaur egun badago jendea bertara joaten dena eta baita konposta etxean egiten duena, eta hori ere zaindu nahi dugu. Prozesua amaitutakoan, lau urteko plana, hori bonifikatzea ere izan daiteke neurrietako bat, herritar horiei zaborraren tasa jaitsita esate baterako. **Herri txikiak izan behar al dira aldaketa horien eredu?**

Nik baietz uste dut, bertatik hasi behar dela, baina ohiturak aldatzea zaila da. Etxean beste ontzi bat izatea eskatzen du honek, banaketa egitea, gunera eramatea... Jendeari beste kontzientzia maila bat eskatzen diogu eta ez da erraza, baina uste dugu aukera izateko



Auzolanen herriaren mantenu beharrak egin zituzten joan den astean. | ALEA

tan nonbait, hemen izan dezakeela.

Euskararen bilakaerak datu interesgarriak izan ditu Zalduondon azken urteotan. Euskaldun portzentaje handienetakoa du, batez ere 40 urtetik beherakoen artean. Zergatik izan daiteke?

Uste dut faktore asko daukela tartean; jende gaztea D ereduan ari da ikasten, Araiako ikastolan batez ere, herrira euskaldunak etorri dira, eta euskararen aldeko giro bat ere sumatu da. Eta aipagarria da, horren herri txikia izanda, bertso eskola bat sortu dela; helburua ez da hainbeste bertsogintzaren inguruan aritzea, hori ere baden arren, baizik eta hainbat belaunalditako gazteak bertsogintzaren inguruan. Euskaldunak izan arren, zaila da euskaraz egiteko esparru bat izatea; gure herrian ere euskaldun asko dago baina ez da entzuten nahi genukeen bezain beste, eta bertso eskola modukoak estrategikoak dira. Herriko zenbait gaztek bultzatuta sortu zen eta nahi genuke mantentzea.

Horretarako, Udalaren laguntza guztia izango dute.

Herri inauteriei beste bultzada bat emateko lanean ere badau bil talde bat. Zer asmo dute?

Kultura talde garrantzitsua dago Zalduondon, urte osoan zehar gauza asko antolatzen dituena. Orain, esate baterako, buruhandi tailer batekin ari dira, gero herriko jaietan izango diren

"Euskararen aldeko giroan, bertso eskola estrategikoa da herrian"

buruhandiekin. Baina aipagarriena, dudarik gabe, herri inauteriak dira. Landa mailako inauteriak bultzatzen ari dira, beste elkarre batzuekin batera, eta dituzten asmoen artean Zalduondoko lazarragatarraren museoa herri inauterien interpretaziorako gune bilakatzea da. Jaurilaritzak, gainera, ondare ez-material izendatu ditu herri inauteriak eta horrek zerbaitez gehiago egiteko atea ireki

dizkigula uste dugu.

Lautadako Kuadrillako lehendakariodea ere bazara, eta aurretik lehendakari izan zinen. Nolakoak izan dira azken lau urte hauek?

Pozik nago egindako lanarekin. Besteak beste, protokolo bat osatu genuen indarkeria matxistaren kontra, gazteen artean ere jarrera matxistak ikertzeko azterlana egin genuen eta orain berdintasun plana prestatzen ari dira. Aguraingo Kuadrilla izena aldatu eta Lautada izatera pasa da eta beste hainbat kontu.

Eta, aurrera begira, nora jo beharko luke Kuadrillak?

Hainbat lan dago egiteko, baina esate baterako konpostajearekin gehiago egin daitekeela uste dut, zaila den arren. Gustatuko litzaidake Kuadrillan bertan zaborra kudeatzeko planta bat izatea, administrazioa eta baita nekazariak ere inplikatzeko... konpostajea ekoitzi eta nekazariak erabili ahal izateko inguruko lurretan. Hori deszentralizatzea ona izan daitekeela uste dut.



Gaubeako Udalak garraiorako emango duen diru-laguntza beste batzuen osagarri izango da. | ALEA

Eskola garraiorako diru saila onartu du Gaubeak

Zonaldeko hamasei urtetik gorako DBHko ikasleeentzat izango dira laguntzak

ESTITXU UGARTE @estitxuugarte

GAUBEA

Gaubeako Udalak onartu berri du udalerriko Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak dituzten familiak banan-banan

laguntzeko partida berri bat. Hala, EH Bilduren ekimenez onartutako mozioan jasotzen denez, ikasturte honetan DBH Gaubeatik kanpo ikasi behar duten gazteen

garraioa diruz lagunduko dute. Udalerriko gurasoen aspaldiko eskaerari erantzuten dio onartutako neurriak.

Diru partida eskatzeko baldintzak oraindik Ara-

bako Buletinean argitaratu ez badituzte ere, udalbatzak aurreratu du hamasei urtetik gorako DBHko ikasleei zuzenduta dagoela eta gutxienez bi urtez udalerrian errolatuta egon behar direla eskaera egiteko. Udalaren dirulaguntza beste batzuen osagarria izango da, alegia Arabako Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak onartzen dituzten dirulaguntzak jasotzeak ez du esan nahi udalak ez dituenik emango.

Beste alde batetik, Gaubeako Udalak gogoratu du urtea amaitu arte zabalik dagoela interneterako banda zabala etxean jartzeko dirulaguntza. Helburua interneterako banda zerbitzu onik ez duten lurraldeetan hura sustatzea da. Izan ere badira herriak bakarturik daudelako, ia jenderik ez dutelako edo duten jendea zaharra delako, operadoreek bazter utzita dituztenak eta ez diete banda zabaleko interneterako sarbide zerbitzua eskaintzen errentagarria ez delako. Inguru horietan ezinbestekoa da herri administrazioen laguntza.

JENDE GUTXI AZOKAN

Aurreko urteetan baino jende gutxiago hurbildu zen joan den igandean Gaubeako patata azokara. Sektorea eta tokiko produktua bultzatzeko asmoarekin antolatzen dute nekazariek 1991. urtetik; 20.000 kilo patata salgai jarri zituzten 25 kiloko zakuetan, 10 euroan.



1991tik antolatzen dute Patataren Azoka; babesa galduz joan da urteekin. | PHOTOK

Liburutegiaren Egunaren bueltan, liburuak banatuko dituzte Maeztun

Tokiz larri dabilta herriko liburutegian eta garbiketa egiten dabilta; gai orokorretako argitalpenak dira eskainiko dituztenak

MIRIAN BITERI

ARRAIA-MAEZTU

Pasa den urtean egin zuten Arraia-Maeztun lehenengoz Liburutegiaren Eguna. Ekimenak izandako harre-
ra ikusita, aurten errepikatzea erabaki dute; baina larunbatean egingo dena "xumeagoa" izango dela aipatu du liburutegiko arduradun Mamen Martinez de Apellanizek.

Batetik, jakinarazi du horrenbeste libururekin txiki geratu egin dela liburutegia, eta tokia lortze aldera beharrezkoa dela garbiketa orokorra egitea. Honakoa azaldu du: "Umeen liburuen eta eleberrien garbiketa urtero egiten dugu, baina orain egiten gabiltzana sakonagoa da; gai orokorretako hainbat liburu kentzen gabiltza, hala nola, filoso-



Gurasoak seme-alabekin, iazko Liburutegiaren Egunean. | M.M.A.

fia edo medikuntzari buruzkoak edo Araba mailako argitalpenak dira. Liburutegiaren Eguna datorrela aprobeztatuz, liburu horiek nahi dutenei ematea pentsatu dugu".

Garbiketa egitearekin batera, Martinez de Apellanizek iragarri du libu-

rutegia ere "ahal den neurrian berritu" nahi dutela, "tokia eraldatu, aretoa zabalagoa bihurtu". Horretarako, "ezinbestekoa" da zahartuta geratu diren liburuak kentzea.

Hiru tailer

Aipatutakoa ez da larun-

"Liburutegia berritu nahi dugu, tokia eraldatu, aretoa zabalagoa bihurtu"

MAMEN MTZ. DE APELLANIZ
LIBURUTEGIKO ARDURADUNA

batean herriko liburutegian egingo duten ekimen bakarra. Umeentzako, esaterako, bi tailer antolatu dituzte. Batean, liburutegi "berrirako" marrazkiak egingo dituzte umeek; eta bestean, ipuin baten amaiera asmatzen ikasiko dute neska-mutikoei. Helduekin ere gogoratu izan dira; literatura solasaldia prestatu dute beraientzako. Liburuen banaketa zein tailerrak larunbata goizean izango dira, 11:00etatik 14:00etara.

KIROLA

Durruma Kanpezuk mendi bizikleta martxa hartuko du

Igandeko proban 400 lagunek parte hartuko dute

M.B.

BURRUMA KANPEZU

Igandean Durruma Kanpezuko XXXIII. mendi bizikleta martxa izango da Izki parke naturalean zehar. Plaza guztiak, 400, aurretiko izen-ematean agortu ziren, eta hortaz, egunean bertan ez da apuntatzeko aukerarik izango.

Bi egunetan jaso ahal izango dira dortsalak: larunbatean, 20:00etatik 21:00etara; eta igandean, probaren

egunean, 07:30etik 09:00etara. Martxa ordu erdi beranduago hasiko da.

Bi ibilbide aukeran

Txirrindulariek bi ibilaldi izango dituzte aukeran: motzak 25 kilometroko luzera du eta erdi-mailako zailtasuna; eta luzeari, berriz, motzean egiten den ibilaldiari beste 25 kilometro gehituko zaizkio. Goi-mailako zailtasuna du.



Iazko edizioa. | JESUS DIAZ

Urtero moduan, parte-hartzaileek horniketa, hamaiketakoa eta bizikleta garbitzeko zerbitzua izango dute; oroigarria jasotzearekin batera, oparrien zozketan ere parte hartuko dute.

NATURA

Ameztirekin mendira joango dira larunbatean

Arraia-Maeztuko Amezti euskara eta kultura elkarteak mendi irteera antolatu du larunbatean. Birgaran egin dute hitzordua, 11:00etan; hango inguruetatik perretxikoak bilatzen emango dute goiza.

Menditik itzultzean, Birgarako zentroan batera bazkaldu egingo dute irteeran parte hartuko duten heldu zein ume guztiek.



Ehun motatik gora perretxiko batzen dituzte urtero Baxaurin. | A.M.

Urteroko hitzordua dute ziza eta perretxikoekin Baxaurin

Urriaren 31an mendi irteera egingo dute, eta jasotakoa sailkatu ostean, bazkaria egingo dute

MIRIAN BITERI

BAXAURI

Urteak daramatza Baxauri kultura elkarteak udazkenean jardunaldi mikologoak antolatzen, eta

aurten ere ez du huts egingo. Hilaren 31rako askotariko ekintzak prestatu ditu. Betiko moduan, goizean, 10:00etan, taldeka banatuko dira parte-har-

tzaileak eta inguruko basoetara joango dira ziza eta perretxiko bila.

Baxauri kultura elkarte kide Alfredo Mendozak azaldu du urtero 60

lagun inguruk parte hartzen dutela esandako irteeran. Goiza mendian eman ostean, herrira itzuliko dira; zain izango dituzte ordurako Aranzadi elkarte mikologoak, jasotakoa sailkatzeko. Horren harira, Mendozak nabarmendu nahi izan du Baxauri elkarte kide Javier Ubillosek egindako lana. Hain zuzen, sailkapenean mikologoek erabiltzen dituzten fitxak berak prestatutakoak direlako; azken urteotan, 1.200 fitxa inguru egin izan ditu Baxaurikoak.

150 mota inguru

Jakina denez, Ubillosen fitxa guztiak ez dituzte erabiliko; baina, bai, asko. Urtero 150 bat ziza eta perretxiko mota topatzen dituztelako zaleek.

Sailkapenaren ondotik, herri bazkaria egingo dute guztiek pilotalekuan. Mendozak gogorarazi du kome-ni dela izena aurretik ematea Baxauriko gizarte etxean edo 635 73 30 41 telefono zenbakian. Bazkalostean, gaiaren bueltan sortu daitezkeen zalantzak argituko dituzte.

EUSKARA

'ZERGATIK EZ' TAILERRA

Asteartean, *Zergatik ez?* lemapean, guraso euskaldunen artean euskararen erabilera soziala sustatzeko tailerra izan zen Argantzunen. Topaguneko Manuel Morenoren eskutik, hizkuntza ohiturak eta erabileraren inguruko gogoeta egin zuten, besteak beste, partaideek.



Argantzungo udaletxean egin zuten asteartean tailerra. | ALEA

Oionen ere euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatuko dute igande eguerdian

Laugarrenez egingo dute 'Euskaraz bizi nahi dut' herri lasterketa; Oiongo zein inguruko herrietako euskaltzaleak batuko dira bertan

MIRIAN BITERI

OION

Arabako Errioxako herrietako kaleetan barrena euskara nonahi entzun dadin, *Euskaraz bizi nahi dut* herri lasterketa egingo dute igandean, hilak 25. Hain justu, Kontseiluaren babesarekin, Oiongo San Bizente ikastolak, Ramiro de Maeztu ikastetxeak eta IKA euskaltegiek antolatu dute esandako ekimena laugarrenez.

Adin guztiei zuzenduta dago lasterketa; kilometro inguruko luzera baino ez du ibilbideak, plazatik hasi eta herriko kaleak zeharkatu ostean, irteera puntuan amaituko da berriro ere.

Kamisetak bost eurotan

Izen-emateari dagokionez, 14 urtetik beherakoentzako bi euroko kostua du; eta gainerakoentzako, bost euro. Parte-hartzaileek *Euskaraz bizi nahi dut* leloko kamiseta erosi ahal izango dute bost euroren truke, eta lasterketa amaitzean egingo den zozketan ere parte hartuko dute. Korrika egiten ez dutenek ere kamiseta eskuratu ahal izango dute; baina, hamar euroan.

Txartelak San Bizente ikastolan, Ramiro de Maeztun eta euskaltegian ez ezik, herriko Adonix tabernan ere daude salgai. Horren harira, Andoni Landa antolatzailleak ohartarazi du lasterketan parte hartzeko izen-ematea azken momentura arte egin ahal izango dela, baina kamisetak lortzerakoan,

aldez aurretik izena emandakoek izango dutela lehentasuna.

Lasterketarekin lotuta, bestelako ekintzak ere izango dira eguerdi partean. Goiz osoan zehar, musika jarriko dute plazan, eta ikastolako eta eskolako ikasleek ere esatari lanak egingo dituzte plazako kioskoan. Proba hasi baino ordu-erdi lehenago, 12:45ean, zunban aritzeko aukera izango da toki berean. 13:15ean, las-

terketa hasiko da; eta hori amaitzean, 13:45etan; sariak banatuko dituzte. *Euskaraz bizi nahi dut* kanpainaren bueltan egingo dako materiala da zozketatuko dutena.

Pintxo berezia

Eguerdia amaiara boro-bila emateko, ekimen berezia izango da herriko tabernetatik. Egun horretarako prestatutako pintxoak dastatzearekin batera, Oihane Perearen eta

Txandio elkarteko bertsolarien bat-batekoak entzuteko aukera izango da. Oiana trikiti taldeak ere alaituko du giroa.

Baikor daude antolatzailleak lasterketak izango duen harrerarekin. Urteik urtera handitzen joan da parte-hartzaileen kopurua: 2012an, 100 lagun batu ziren; 2013an, 130 peto inguru banatu zituzten; eta 2014an, 150. Aurten, orain arteko "marka guztiak haustea" espero dute.



San Bizente eta Ramiro de Maeztuko ikasleek hainbat lelo asmatzen dituzte urtero. | A.L.

KIKE AMONARRIZ

TELEBISTA AURKEZLEA ETA SOZIOLINGUISTA. Oihaneder Euskararen Etxean izan da Kike Amonarriz Solasalean zikloaren barnean, euskara, soziolinguistika, umorea eta bere esperientzia pertsonalen inguruan hitz egiteko. **A.ALVAREZ** GASTEIZ

"Gasteiz leku pribilegiatu bat da euskalki berri baten sorkuntza aztertzeko"



Euskara eta soziolinguistikarekin batera, umorea izan zen nagusi Amonarrizen Solasalean. | AITOR ALVAREZ

Publikoaren nahiz kazetarien galderak erantzun zituen pasa den ostiralean Kike Amonarrizek (Tolosa, 1961), telebista aurkezle eta soziolinguistak, ALEA, Hirinet eta Oihaneder Euskararen Etxeak elkarlanean antolatutako Solasalean saioan.

Zein izango da euskararen etorkizuna?

Ulertzen dudanarengatik, hizkuntzak kuantitatiboki aurrera egingo badu ezinbestean kualitatiboki zer edo zer galduko du. Horrek ez du esan nahi, inondik inora, automatikoki eta sistematikoki esan indarra bilatu nahi dugun guztietan erdaratar

jo beharko dugunik. Horrek esan nahi du, aktibatu behar ditugula mekanismo batzuk hizkuntzarekin jolasteko, hizkuntza sortzeko, boligrafo gorrietatik kanpo, Euskaltzaindiaren arauetatik kanpo, eta beste espektatiba batzuekin. Hori da erabiltzen diren hizkuntzekin gertatzen dena. Oso ikuspegi murrizta eta estua izan dugu askotan, gehiegitan; zer den zuzena eta zer ez den zuzena. Eta hizkuntza sormenari ate asko itxi dizkiogu. Horregatik, beharbada, ez da argot askorik ere sortu azkenbolada honetan eta uste dut hori guztia baliatu behar dugula. Gasteiz

izan daiteke horretarako esperimentazio leku oso ona, eta da. Hitzaldiak ematera etorri izan naizenean, hemen material oso ona jaso dut, besteak beste konplexu gutxiagorekin sortutako materiala zelako. "Kontra-bandista linguistiko" asko dago Gasteizen, alde batetik hartu eta bestetik kentzen duena, eta hori ona da. Alde horretatik, iruditzen zait, Gasteiz ere badela esperimentazio leku bat. Gainera bentaja bat daukazu, kenduta "jan, lo", inork ezin du esan hori hemen ez zela esaten. Tolosan hori esaten dizute, "hori Tolosan ez da inoiz esan".

Nola erdietsi gazteek, gune erdaldunetan bizi direnek bereziki, euskara arrotz senti ez dezaten eta euskarara hurbildu daitezen?

Hasteko, maitasunez; eta gero ez bereiztea, hasieratik nahastea, bat izan behar dute besteekin. Hor daude klabe batzuk, baina euskara maitatzeko, erabili behar duzu, ezagutu behar duzu, sentitu behar duzu. Azken 30 urteotako ibilbideak zerbait erakusten baldin badigu eta erakutsi digu oso garbi, izan da eskola ezinbestekoa dela baino ez dela nahikoa. Esaldi horretan laburbiltzen da egoera eta Gasteiz bezalako leku batean, are gehiago. Guraso erdaldunei emandako hitzaldietan beti esan izan diet: *“Tenéis que conseguir que vuestros hijos y vuestras hijas realicen alguna actividad en euskera que les guste a ellos, no a vosotros”*. Hemen bertso eskoletan lortu da. Manex Agirrek egindako azterketak, esate baterako, hori erakutsi du: ingurumen bat gustuko jarduera batean non euskaraz jardungo duzun modu natural batean. Hori behar da Gasteiz bezalako herri batean, harreman natural bat. Desakonplejatu eta harrotu behar da, harrotasunez bizi hizkuntzaren konkista hori. Boligrafo gorriak kentzea. Oso desberdina da zuk menperatzen ez duzun hizkuntza batean jendeak

"Desakonplejatu eta harrotu behar da, harrotasunez bizi hizkuntzaren konkista"

barre egitea edo deskojonatzea. Lehenengo normala da, onartu behar da. Bigarren kasuan, "biolentzia fisikoa" nik onartzen dut.

Zer egin euskara 'salbatzeko'?

Hiru klabe daude; gizartearen atxikimendu eta aktibazio soziala handitu, administrazioaren eta eragile politikoen inplikazioa areagotu eta bi horien artean ahalik eta adostasun eta elkarlan handiena lortu. Maila indibidualera jaitsita, konpromiso pertsonalak lortu behar ditugula uste dut. Ezin dugu ahaztu, hemendik aurrera belaunaldi bakoitzak erabakiko duela euskara transmitituko duen ala ez, erabiliko duen ala ez. Hurrengo belaunaldia eleantzen izango da, jakingo ditu, gutxiago edo gehiago, okerrago edo hobeto, hiru hizkuntza eta erabaki beharko du momentu eta espazio bakoitzean zein hizkuntza erabili. Horregatik, garrantzitsua da euskararen aldeko hautu hori erraztuko duten eta bermatuko duten guneak eta eremuak izatea; horregatik dira garrantzitsuak euskararen aldeko

politika proaktiboak.

Zein da Gasteizen eman den euskararen bilakaeraren inguruan egiten duzun irakurketa?

Iruditzen zait Gasteizen dagoen dinamika soziala indartsua dela eta oso interesgarria, gainera. Hemen sortzen ari den giroa desberdina da, propioa. Gasteizen, eta Araban oro har ere, badago nortasun erakuntza berri bat eta nortasun berri horren eraikuntzan euskarak badu bere garrantzia. Gasteiz leku pribilegiatu bat da euskalki berri baten sorkuntza nolakoa izan daitekeen jakiteko. Gasteizen euskaraz egiten bada, Gasteizeko euskara zabaltzen joango da eta hemendik hamar urtetara hamabost urte izango dituzten gazteek izango duten euskara XXI. mendeko Gasteizeko euskalki berriaren lehen ereduia izango da. Ez dakit nolakoa izango den baina aurreikuspen batzuk egin daitezke. Eklektikoagoa izango da, batutik gertuago egongo da, erdararen eragin gehiago izango du, baina izango ditu pieza batzuk bizkaieratik hartuta, Goierriko euskararen aztarnatxo batzuk ere sumatuko zaizkio... Alde horretatik, mundu mailako esperimentu linguistikoa bihurtzen ari da Gasteiz.

BIDEOA: WWW.HIRINET.NET



Laurogei lagun baino gehiago bildu ziren Oihaneder Euskararen Etxean pasa den ostiraleko Solasalean zikloan. |AITOR ALVAREZ



Azken berritasun teknologikoekin egindako sorkuntza artistikoa erakutsiko du Bernaola jaialdiak; irudian, aurreko edizioetako bat. | SINKRO

Musikaren 'etorkizunera itzulera'

Datorren asteazkenetik azaroaren 30era arte, gaur egungo musika berritzaileena ekarriko ditu Bernaola Festival jaialdiak Gasteizera, konpositore garaikideen hogei estreinaldi baino gehiagorekin. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Dantza plastikoa, argi kontzertua eta diseinu interaktiboa: proposamen berritzailez beteta dator beti Bernaola Festival jaialdia, Carmelo Bernaola (1929-2002) Gasteizko Kontserbatorioko zuzendari izandakoaren izena gogora ekarrita. Hamabigarren edizioa datorren urriaren 28an hasiko da (asteazkena), eta hilabetez luzatuko da, azaroaren 30era arte. Guztira, hamazortzi hitzordu lotu dituzte bertako eta kanpotik etorritako musikagile, soinu laborategi eta esperimendazio estudioekin, Gasteizko Sinkro espazioko kideek antolatuta.

Hainbat agertoki hartuko ditu jaialdiak aurten ere: Gasteizko Jesus Guridi Musika Kontserbatorioa, Luis Aranburu musika eskola eta Arabako Arte Ederren museoa, bai eta Artium arte garaikiderako zentroa ere. Bertan abiatuko da

Datozen egunetan

ARTIUMEN

Urriaren 28an, asteazkena

Basuromio instalazioa, Turukutupa konpainiarekin.

Urriaren 30ean, ostirala

20:00etan, *La emoción sonora* liburuaren aurkezpena (J.L.Galiana); ondoren, 20:30ean, *Ready saxofoi*, piano eta elektronika emanaldia, J.L. Galiana eta Carlos D. Peralesekin.

Urriaren 31n, larunbata 20:00etan, *Imaginarium* dantza eta elektroakustika emanaldia, Michelle Man eta James Hewisonekin.

Azaroaren 1ean, igandea

18:30ean *Basuromio* ekintza, Turukutupa konpainiarekin; 20:00etan *Akusma*, Zuriñe F. Gerenabarrenarekin.

hain zuzen ere egitaraua, datorren asteazkenean Turukutupa musika eta antzerki konpainia gasteiztarren *Basuromio* instalazioarekin.

Bertako talentua

Gasteizko hainbat musikari eta sortzaile entzutetsuk hartuko dute parte jaialdian, tartean Alfonso Gomez pianojole ospetsuak, Zuriñe F. Gerenabarrena konpositoreak, Ensemble Sinkro taldeak eta Kontserbatorioko ikasleek osatutako Guridi Garaikidea ekimenak.

Hiru arlotan antolatu dituzte emanaldiak: Sinkro espazioa, teknologia berriekin lotuta; Musikari Gazteak, gazteenen interpretazioekin; eta Concert Series, bakarlarrien eskutik. Jaialdian gaur egungo konpositoreen hogeitau baina gehiago estreinatuko dituzte. Egitarau osoa Bernaola Festival atarian ezagutu daiteke, www.bernaolafestival.com.



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak

Zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus



Errigora saskia

Nafarroako Erriberan euskara eta nekazaritza sustatzea helburu duen Errigora ekimenaren eskutik, 50 eurotan baloratutako **produktu ekologikoen saski bat** zozketatuko du ALEAK. Eman izena azaroaren 2a baino lehen. Datorren hilaren 6an jakinaraziko dugu irabazlea.



Parralen bazkaria

ALEAK **bi lagunentzat** menu begetarianoa zozketatuko du Gasteizko Alde Zaharreko **Parral** tabernan, astean zehar bazkaltzeko. Eman izena datorren astelehena baino lehen (urriaren 26a). Hilaren 30eko ALEAN jakinaraziko dugu irabazlea.



GASTEIZ
David Navarro Cruz

"Korrikalari, pilotari, euskara ikasle, sukaldari, burugogorra... eta batez ere, lagun ona! Urteek ez dute *navarriñarik* egiten, eh? Aurtengo Behobian, eman egurra. Musu handi bat auzoko lagun guztien partez. Aupa Navarro!".



GASTEIZ
Oihan Herrero Gorospe

"Zorionak Oihan! Bost urte! Zurekin ilargiaraino joango ginatke. Muxu handi bat guztien partez!".



AZAZETA
Urtzi Espino

"Azazetako pizzeria hasi da labea berotzen herriko negu hotzetarako... eskerrak edozein elurtetatik salbatuko duen txakurra lagun duen. Zorionak Urtzi!".

Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603



GASTEIZ
Iñaki Martínez de Luna

"Aurtengoan ez da horren txarra izango urteak betetzea... zure gauzetan denbora gehiago emateko aukera izango duzue... eta agian baratza ere hobeto zainduko duzue... Zorionak. gazte!".



AGURAIN
Aratz Arbaiza Campo

"Zorionak Aratz! Segi horren alai ta maitakor izaten. Txokomarrubizko muxuak".




GASTEIZ
Indarra euskal kultur elkarte

"Zorionak ekipo! Ibizatik etorri berri Ciutat d'Eivissa-ko XV. Mostra Folklorica-tik, eszenatokia asturiar, eivissar eta extremadurar folkloreakideekin partekatu eta gero. Dantzan finak, musikari bertutetsuak eta kalea girotzen talde ederra. Un fort aplaudiment!".



HITZ GEZIDUNA

	*	▼	Zerukoa	▼	Beharra	▼	
	Mendi magala		Zakarrak		Aintzira		
	▶		▼		▼		
	Saski handi	▶					
	Zure						
Buru-hausteak	▼	Kulunka	▶	▼			
Federaziora bildu		Esaten du					
▶		▼				Hasi!	
Segurua	▶					Bokala	
Ekorakoak						Jardun	
▶						▼	
Bokala	▶	Edateko gogo	▶				
Eguzki		Bokal mehea					
▶		▼					
			Intsektu bizkarroi	▶			


* Zalduondoko jauregia

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA



SUDOKUA



GOITIBEHERA




SUDOKUA

				8		9		
	6			5	2			1
5			6			7		
1				4	2	5		
		4				8		
	3	2	9					7
		9			3			2
3			2	4				1
	1		8					

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA



Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.

1. Ez beroa ez hotza, epela.
2. Gizon izena.
3. Urizaharreko kontzejua.
4. Zapata-zorua.
5. Burdinola.
6. Sail.
7. Aintza.
8. Jarduera fisikoa.
9. Klera, kisu.

URRIAK

23

URRIAK

29

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Antton Aranburu

Gasteiz. Osteguna 29, 19:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean. Eskilarapeko Soinuak egitasmoaren barruan.

ANTZERKIA

'Muxua'

Gasteiz. Osteguna 29, 20:30ean, Principal antzokian.

BERTSOLARITZA

Gazteak Plazara saioa

Legutio. Ostirala 23, 19:00etan, gazte gunean. Peru Abarrategi, Unai Argote, Maria Fuentes eta Egoitz Iradierrek.

Bertso saioa

Arespalditza. Larunbata 24, 18:30ean, ferialekutik plazara kalejiran. Asier Rubio bertsolariarekin.

Bertso saioa

Izarra. Igandea 25, 13:00etan, nekazal eta abeltzain azokan. Peru Abarrategi eta Xabier Igoa bertsolariarekin.

Bertso poteoa

Oion. Igandea 25, 13:30ean, plazatik abiatuta. Oihane Perea eta Ander Solozabal bertsolariarekin.

HAURRAK

Joaldunen tailerra

Ekora. Larunbata 24, 11:00etan. Gazteentzako tailerra.

Orri markatzaileak egiteko tailerra

Laudio. Larunbata 24, 17:30ean, Gardeako gizarte etxean. Arima taldeak koordinatuta. 5 urtetik gora.

Txangoa Zalduondora

Araia. Igandea 25, 10:00etan, Araia autobus geltokitik abiatuta. Atxipi mendi taldeak antolatuta.

'Irripuinak' Largabistarekin

Gasteiz. Igandea 25, 17:00etan, Abendaño ikastolan. Ondoren jolas kooperatiboak izango dira. Igandekai egitasmoaren barruan.

'Burutik jota' ikuskizuna

Legutio. Igandea 25, 18:00etan, kiroldegian. Trokolo antzerki taldearekin.

'Tximeletrak airera', Xabier Olasoren errezitaldia

Gasteiz. Asteartea 27, 18:00etan, Pilar gizarte etxean. 6-12 urte bitartean.

Euskararen Asteburua

Arespalditza. Larunbata 24, 18:00etatik aurrera, herriko plazan. Topaketa, musika-kalejira, bertso saioa eta beste hainbat jarduerak izango dira. Igandean, Lantenon, 17:00etan, magia ikuskizuna izango da.



Han

Gasteiz. Asteartea 27, 20:30ean, Parral tabernan. 'Muxuak' izeneko lehenengo lana aurkeztuko du Elorrioko taldeak.


'Pirata garrapataren abenturak' antzerkia

Gasteiz. Asteazkena 28, 18:00etan, Hegoalde gizarte etxean. Patata Tropikala taldearekin. 4-8 urte bitartean.

IKUS-ENTZUIN

'Negar Franko egin zuen aitak' dokumentala

Gasteiz. Osteguna 29,



AIARALDEA ATARIA



HAN



ALEA

'Measure for measure'

Gasteiz. Ostirala 23, 20:30ean, Principal antzokian. Errusiaren erretratu gordina egingo dute Cheek by Jowl eta Pushkin

Theatre konpainiek aurkeztuko duten *Measure for measure* lanean, Declan Donnellaren zuzendaritzapean. Errusieraz eskainiko dute, gaztelaniazko goi tituluekin.

18:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean. Bertha Gaztelumendik zuzendutako dokumentala.

BESTELAKOAK

'Euskaraz bizi nahi dut' herri lasterketa

Oion. Igandea 25, 12:45etik aurrera, herriko plazatik abiatuta. Horrekin batera, zunba saioa, trikitixa eta beste hainbat jarduera izango dira.

Geurekin Mendira

Gasteiz. Igandea 25, 08:30ean, Mendizorrotza kiroldegitik abiatuta. Ganekogortara izango da mendi irteera.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Politburo Fest

Laudio. Ostirala 23, 20:30ean, Orbeko etxean. Criatura, La

Hora del Primate, Mankaos taldeak.

The Fleshtones eta The Montesas

Gasteiz. Ostirala 23, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

Haritz Hostoak abesbatza

Gaubea Larunbata 24, 19:00etan, eskolan.

FourScore, Tiempos de Ira, Worth It eta No Regret

Gasteiz. Larunbata 24, 20:00etan, gaztetxean. Hardcore gaua.

Arizona Baby eta Los Misterios

Gasteiz. Larunbata 24, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

'Esto no es rock radical vasco' ikuskizuna

Gasteiz. Larunbata 24, 20:00etan, Jimmy Jazz aretoan. Eskorbuto, La Polla eta Kortaturi omenaldia.

Laudioko musika bandaren emanaldia

Laudio. Igandea 25, 19:00etan, Lamuzako San Pedro elizan.

Tururutupa

Gasteiz. Asteazkena 28, 20:00etan, Artiumen. Bernaola jaialdiaren barruan.

ANTZERKIA

'El purgatorio'

Gasteiz. Ostirala 23, 19:00etan eta 21:00etan, Anden tabernan. Carmen San Esteban aktorearekin.

'Brooklyn'

Amurrio. Larunbata 24, 20:00etan, Amurrio antzokian.

'Sin Salida'

Gasteiz. Igandea 25, 19:00etan, Arana gizarte etxean. 13 Lunas taldearekin.

'Best of you'

Gasteiz. Asteazkena 28, 20:30ean, Principal antzokian. La Intrusa dantza taldearekin.

HITZALDIAK

'El Ictus', Juan Timiraos neurologoarekin

Gasteiz. Ostirala 23, 17:00etan, Ignacio Aldekoa gizarte etxean.

ERAKUSKETAK

'Indiasensations' Irantzu Lekueren bilduma

Gasteiz. Azaroaren 15era arte, Montehermoson.

'World Press Photo'

Gasteiz. Azaroaren 15era arte, Montehermoson.

'Punk. Sus rastros en el arte contemporáneo' bilduma

Gasteiz. Urtarrilaren 31ra arte, Artiumen.

'Interfaz', Jose Luis Ramirezzen argazki erakusketa

Gasteiz. Azaroaren 15era arte, America aretoan.



FAMILIA HARRERA



Arabian ume askok harrera familia bat behar dute, aldi baterako zaindu eta etorkizun hobeia eskainiko dietena.

Familia bat
behar dugu.

Hartuko
gaituzu
zurean?

945 773 052

www.alava.net/ifbs



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava